

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO

## Patata txar hori!

SOLANOZEOAK ETA POZOIA gaiak nondik heldua badu. *Solanum tuberosum*, patatatik, adibidez. Solanazeoetan pozoia eguzkiaren energia baliatze-ko erabiltzen dituzten zati berdeetan dago, hartara hosto eta zorten guriak ez dizkiote jango. Berdetu gabeko zatiak jaten dizkiegu guk: tomateak, piperrak, alberjiniak... Jeneralean familia honetako landareen fruituak dira gure bazka, patatarena, ordea, tuberkulua. Ameriketatik ekarritako landare honen tuberkulua eguneroko jatena egin genuen eta gure elikaduraren ohorezko mailetara igoa eta goratua dugu. Hain dugu etxeko, ze edozein tuberkuluri edo erreboilari patata esaten diogu: idi-bihotzaren patata, daliaren patata...

Patataren patata jateko txarra edo pozoitsua dela, lehendik ere entzuna izango duzu. Bai anderea! Hala da, pozoia du. Esan bezala, solanazeoetan zati berdeak izan ohi dira pozoiz jantziak. Patata ilunpetan jaso bada, ez du berde izpirik ere izango; baina deskuidoan argitan egon bada berdetzeko joera hartuko du. Joera hau patata tuberkulua, erreserba zati bat izaki, patata landarearen egitura-zen zati delako du. Gogoratu: patata ez da fruitua.

Berdetzen den patatak solanina alkaloidea du. Honek tripetako gorabeherak sor ditzake, baita neurologikoak ere: goragalea, gonbitoa, beherakoa,

buruko mina, eztarriko azkura, erantzun alergikoak... Muturreko pozoitzeetan haluzinazioak, konortea galtzea, hipotermia, tentsioa apaltzea eta abar izan dira.

Eta, nola arraio jaten dugu, bada? Munduaren erdia patata nan-nan, jan eta jan... Kontuz prantatuta. Berdeak dau- den zatiak ondo

kendu, eta azal eta guzti jatez gero heldu gabeko ale tikiak jan, azala osatu eta zaildu gabe dutenak. Oraintxe da hauen sasoi, baba eta ilarrekin...

Patata gerorako jasotzeko eginez gero, patata ez luze eduki, zahartu ahala gero eta solanina, hau da pozoia, gehiago du.

## Marrubi urtea

Lagun batek aipatu dit aurten bezalako marrubi (*Fragaria vesca*) urterik ez duela sekula ezagutu. Eta ni ados. Mendian, bide ondoko pendiztxoetan marrubi batzuk bildu eta jateko luxua aurten pagotxa da. Inoizko marrubi gehienak jasotzen ari naiz. Udaberri lehor honek eragindakoa izango da. Dena aurreratua dator, eta guri. Hezetasunik ezak gaitzak atzeratu egiten ditu, baita usteltzeak ere eta fruituak luze ontzeko aukera du. Gereziak ere aurreratuta datoz. Aurtengo fruitu-uzta guztien ezaugarria izango denaren susmoa dut...



JAKOBA ERREKONDO



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua [landareak@argia.com](mailto:landareak@argia.com) helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

DAG ENDESEN-CC BY SA



Lore-lan  
Lurez S. Coop.

Lorezaintza proiektuak  
Mantentze-zerbitzua

Tel. 609 42 45 47 · Faxa: 943 79 49 12 · lorelan@euskalnet.net